

Liburutegietarako dirulaguntza jaso dute zenbait udalek

Fondoak handitzeko edota berritzeko laguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzatik eskualdeko zazpi udalek

Maite Orue

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak udal liburutegietako fondoak berritzeko edota handitzeko dirulaguntza eman die eskualdeko zenbait udali.

Dirulaguntza hori jaso duten udalak Bermeo, Ajangiz, Gernika-Lumo, Busturia, Forua, Muxika eta Mundaka izan dira.

Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzetako bat Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barruan egotea da eta, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen artean 800.000 euro banatu ditu Eusko Jaurlaritzak. Horietatik, 20.358,22 euro izango dira eskualdeko liburutegien fondoak handitzeko.

Diru kopururik handiena Bermeok eta Gernikak jaso dute, bakoitzak 8.074,77 euro, hain zuzen ere. Busturiak eta Mundakak 1.076,64 euro jasoko dituzte, Muxikak 978,76 eta, azkenik, Ajangizek eta Foruak 538,32 euro.

Bigarren laguntza bat

Bestetik, Gernika-Lumok izan ezik, aipatutako gainontzeko udal guztiek aparteko dirulaguntza ere jasoko dute. Izan ere, haur eta gazteen artean irakurtzeko zaletasuna areagotzeko edota Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko liburutegi zerbitzuen erabilera sustatu asmoz antolatutako jarduerak ere diruz lagundu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak.

Kasu honetan ere Bermeok jaso du laguntzarik garrantzitsuena, 2.153,45 euro, hain zuzen ere. Muxikak 1.103 euro jaso ditu, Mundakak 931,45, Ajangizek 834,45, Foruak 811,45 eta Busturiak 742,45 euro. Guztira, 26.934,47 euro banatu dituzte Busturialdean.